



ARGI BERDEA EMAN DIOTE 2DEO- RI, EUSKARAZKO IKUS- ENTZUNEZKO EDUKIAK SORTZEKO TABAKALERAKO LABORATEGIARI

- **Foru Aldundiak milioi bat euro eman dizkio Tabakalerari proiektua martxan jartzeko, eta hasierako fasea Iban Arantzabalek koordinatuko du**

Onartu berri dute 2deo proiektua, hots, euskarazko ikus-entzunezko edukiak sortzeko Tabakalerako laborategia, Etorkizuna Eraikiz foru-programaren bidez sustatua. Gaur, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak oniritzia eman du kultura-zentroari 980.000 euroko diru-laguntza emateko, proiektu hori martxan jar dezan. Datozen hilabeteotan emango da argitara proiektua, eta hasierako fasea Iban Arantzabalek koordinatuko du. Gipuzkoako diputatu nagusi Markel Olanok adierazi du onarpen hori oso garrantzitsua dela, 2deo abiaraziko duen mugarrira izango delako. “Iazko abenduan aurkeztu genuen diseinua, eta martxoan, berriz, laborategiaren proiektua Tabakalerara eraman genuen; orain, proiektua errealitate bihurtzeko beharrezko baliabideak jarri ditugu”, azaldu du.

Foru-arduradunak prentsaurreko batean parte hartu du gaur Donostian, eta han izan dira, halaber, Edurne Ormazabal, Tabakalerako zuzendaria, eta Iban Arantzabal, 2deo-ren hasierako fasea koordinatzeaz arduratuko den pertsona. Prentsaurrekoan, hartutako erabakien berri eman dute. Laborategiaren proiektua Etorkizuna Eraikiz programaren barruan diseinatu eta abiarazi da. Foru Aldundiak sustatzen du programa hori, Gipuzkoaren etorkizuna gipuzkoarrekin batera eraikitzeko xedez, eta Eusko Jaurlaritzak eta Donostiako Udalak babesa ematen dute. Aurtengo martxoan, Tabakalerak 2deo zentroaren berezko jardueren barruan sartzeari onartu zuen, eta, beraz, aurrerantzean laborategiak bere bizitza egingo du, eduki kulturalak sortu eta zabaltzeko ingurune apropos batean.

“Gaur egungo gazteek gero eta ikus-entzunezko produktu gehiago kontsumitzen dituzte, eta euskararen etorkizuna bermatu nahi badugu, gure hizkuntzak lekua egin



behar du esparru horretan”, azaldu du diputatu nagusiak. Ildo horretatik, erantsi du horixe izan dela beti 2deo proiektuaren abiapuntua edo hasierako intuizioa. “Gogor ahaleginduz eta sektorearekin lan eginez, euskarak leku hobe izango du ikus-entzunezko eduki berrien eremuan, ziur nago horretaz. Eta, ahalegin horretan, 2deo-k funtsezko zeregina bete behar du, edukiak sortuz eta euskarazko ikus-entzunezkoen ekosistema dinamizatuz”, azaldu du.

UPV/EHUK Aldundiarentzat eginiko azterlan baten arabera, gazteek gaztelaniazko ikus-entzunezko produktuak kontsumitzen dituzte, batik bat alternatibarik ez dutelako eta euskarazko edukirik ez dagoelako. Hala eta guztiz ere, eta betiere azterlan horren arabera, gazteak ikus-entzunezko produktuak euskaraz kontsumitzearen alde daude. 2deo-k, horrenbestez, hutsune hori betetzeko erronkari aurre egin nahi dio. “Ikus-entzunezko produktuak gero eta gehiago kontsumitzen dira, eta, hori kontuan harturik, ezinbestekoa da euskararen presentzia areagotzea, bai hizkuntzaren erabilera handitzeko bai euskal kulturaren eta gure identitatearen transmisioa eteteko mehatxuari aurre egiteko”, ohartarazi du Olanok.

- **Laborategia**

Iban Arantzabalek (Elgeta, 1975) zuzenduko du 2deo laborategia martxan jartzeko prozesua. Arantzabalek berak koordinatu du hausnarketa-aldia euskarazko ikus-entzunezkoen sektorearekin batera, eta horri esker diseinatu ahal izan da proiektua.

Laborategiari dagokionez, Aldundiak Tabakalerari emandako 980.000 euroko diru-laguntzatik 400.000 laborategiko azpiegitura martxan jartzeko erabiliko dira. Laborategia kultur zentroaren lehen solairuan egongo da, gaur egun Erakusketa Aretoa dagoen lekuan. Hala, areto hori lekuz aldatuko da eta eraikinaren lehen solairuan dagoen beste gunee batean kokatuko da.

2deo-k 500 metro inguruko instalazioak izango ditu, modu dinamikoan, eskalagarrian eta unean uneko beharretara egokitzeko modukoan egituratuko direnak. Espazio irekiak izango ditu, elkarrekintzara gonbidatuko dutenak, baita ikuskaldietarako eta ediziorako gunek eta laborategiko langileek lan egiteko tokiak ere. “Ateak beti zabalik egongo dira herritarrentzat; edonoiz sartu ahal izango dira gunee honetan zer eta nola egiten den ikustera”, esan du Arantzabalek.

2deo sustatu duten eragileek azaldu dutenez, egokitzapen-lanak urte amaieran hasiko dira. “Datorren martxorako laborategia erabilgarri egotea espero dugu, eta ikasturte hasierarako hainbat arlotako lehen deialdiak egiteko moduan egongo gara”, azaldu du 2deoren arduradunak. Laborategiko langileei dagokienez, Arantzabalez gain garapen arduradun bat kontratatzea aurreikusi da.



“Zinema eta ikus-entzunezkoak Tabakaleraren ardatz nagusietakoak dira dagoeneko, eta 2de laborategia Donostiako Zinemaldiarekin, Euskadiko Filmategiarekin eta Elías Querejeta Zine Eskolarekin batera osatzen dugun egitasmoa aberastera dator”, azaldu du Edurne Ormazabal, Tabakalerako zuzendari nagusiak.

Bestalde, Ormazabalek azaldutakoaren arabera, “Tabakaleraren helburuetako bat sormena eta sorkuntza sustatzea den heinean, 2de laborategia tresna aproposa izango da. Tabakaleraren asmoa ikus-entzunezko arloan lanean ari diren sortzaileentzat eta ikus-entzunezko industriaren sektorearentzat erreferente bihurtzea da, eta baliabideak eskaintzea proiektuak sortzeko, garatzeko eta ikusarazteko”.

- **Kronologia eta lehen emaitzak**

Sentitzen genuen euskarazko ikus-entzunezko edukiak sustatzeko nolabaiteko beharra zegoela. Hori horrela, eta Etorkizuna Eraikiz programaren barnean, 2016an landa-ikerketak bat egin zen Gipuzkoako nerabeek Interneteko edukiak kontsumitzeko zer ohitura zituzten jakiteko. Horri esker, gaiari buruzko datu zehatzak eskuratu genituen. 2017an, datu horiek oinarri hartuta, hausnarketa sakona egin zen sektoreko eragileekin batera, eta, hala, Tabakaleraren barruan euskarazko ikus-entzunezkoen sorrera sustatzeko laborategi bat egiteko proiektua definitu zen.

Proiektu hori aurreko abenduan aurkeztu zen jendaurrean. Ekitaldian izan ziren Foru Aldundiko, Eusko Jaurlaritzako eta Donostiako Udaleko ordezkariak; izan ere, hiru erakunde horiek Tabakalerako kide dira eta 2de laborategiaren proiektua babesten dute. Proiektua abian jartzeko hurrengo pausoa martxoaren 23an eman zen. Egun horretan, Foru Aldundiak proposatuta, kultura-zentroko Administrazio Kontseiluak baimena eman zuen 2de Tabakaleraren barneko eginkizunen artean sartzeko.

Gainera, proiektua osatzeko prozesu horrekin batera, beste zenbait programa pilotu egin dira 2de laborategiaren proiektuaren barnean. Programa horietako batzuk erabat garatuta daude jada. Horien artean aipatzekoa da JarriON proiektua, zeinaren bidez Chromecast bat erabiliz telebista telefono mugikorrarekin urrutitik kontrolatzeko aukera ematen duen software bat garatu baita. Aplikazioa eskuragarri dago Android mugikorretarako, eta webgune honetan ere eskura daiteke: www.jarrion.eus. Euskarazko ikus-entzunezko askotariko edukiak biltzen ditu, hala hedabideetakoak nola beste eragile eta banakako batzuenak, eta gero horiek telebistan proiektatzen ditu.

Gauzatutako beste proiektuetako bat Go!azen Transmedia da. Proiektu horren helburua da ETBko Go!azen saio arrakastatsua produktu transmedia bihurtzea; alegia, istorioa zenbait euskarriren bidez elikatzea eta euskarri bakoitzean ikus daitezkeen gertakariak elkarren osagarri izatea. Horretarako, sare sozialak erabili dira eta telefono mugikorretarako aplikazio bat sortu da Go!azen telesailaren azken denboraldian.

TABAKALERA



Esperimentuak arrakasta handia izan du: hain zuzen, aplikazioak 25.000 erabiltzaile aktibo izan ditu.

Donostia, 2018ko uztaialak 10

Info+

prentsa@tabakalera.eu

943011311

www.tabakalera.eu

**KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA**
—

**CENTRO
INTERNACIONAL
DE CULTURA
CONTEMPORÁNEA**
—

**INTERNATIONAL
CENTRE FOR
CONTEMPORARY
CULTURE**
—

tabakalera.eu
—